

JOALDUNAK



Ituren eta Zubietako inauterietan daude. Ardi larruzko txalekoa, ttuntturroa izeneko txapela eta bizkarrean bi joare daramate. Joareekin soinua egiten dute, izadiaren esnatzea eragiteko.

ZAMALTZAINAK



Zuberoako inauterietan hartzen dute parte. Zaldi burua eta buztana duen egurrezko armazoi bat, jaka gorria, urrezko apaingarriak eta buruko gorri bat daramate.

MARKITOS



Traje beltzez, gorbataz eta txapelaz jantzitako metro bateko panpina da eta Zalduondoko inauterietako pertsonai nagusia da. Hauetan, panpina zutoin batetik zintzilikatzen da eta kalez kale eramaten dute.

EUSKAL INAUTERIETAKO PERTSONALIAK



MIEL OTXIN



Lantzeko inauterietako pertsonaia da eta espiritu txarren irudikapena dela uste da. Lastoz betetako 3 metroko panpin hau herrian zehar eramaten da. Egun bukaeran, hau exekutatu eta erre egiten dute.

HARTZA



Arizkuneko inauterietan dago. Gizon batek bere gorputza artilez estaltzen du eta burua estaltzelko ahari burezur bat erabiltzen du. Hartzza kaleko jendea izutzen saiatzen den bitartean, berarekin zaintzaile bat dago.

MAMUXARROAK



Unanuako inauterietan ateratzen dira. Maskara misteriotsu bat, ator zuria, kaskabiloz betetako gerrikoa eta hurritz-makila bat daramate. Kale maldatsuetatik korrika doaz jendearen atzetik, hauek egurtzeko.

ATORRAK



Mundakako inauterietan hartzen dute parte. Zuriz janzen dira eta herritik doaz haien instrumentuak jotzen. Portura iristean, ekitaldiak egiten dituzte, non kantak abesten dituzten.

ZAKU ZAHARRAK



Lesakako inauterietan ateratzen dira. Gorputz osoa zakuz estali eta belar idorrez betetzen dituzte. Burua oihal zuri batekin estaltzen dute eta lastozko txapela bat daramate. Herritik ibiltzen dira elkarren artean bultzaten.